



DBH 1 eta DBH 2

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza oinarrizko derrigorrezko hezkuntzaren zati den hezkuntza etapa bat da, lau ikasmaita dituena. Ikasleek hamabi urte betetzen dituzten urte naturaletik hamasei urte betetzen dituzten urte naturalera bitartean egin ohi dira maila horiek.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren helburua da ikasleek kulturaren oinarrizko elementuak bereganatzea, batez ere alderdi humanistikoan, artistikoan, zientifiko-teknologikoan eta motorrean; ikasleengan ikasteko eta lan egiteko ohiturak garatzea eta finkatzea, bai eta bizi-ohitura osasungarriak ere; eta, halaber, ondorengo ikasketei heltzeko nahiz laneratzeko prestatzea eta herritar gisa dituzten eskubide eta betebeharrak gauzatzeko trebakuntza ematea.

Etapa honetan bermatu nahi da oinarrizko irakaskuntza arrakastaz gainditu eta, beraz, irteera-profila lortzen duten ikasle guztiek jakinen dutela ikasi dutena aktibatzen, bizitzan zehar aurrean izanen dituzten desafio nagusiei erantzuteko

Gure ikastetxean DBHko lehen bi mailak bakarrik eskaintzen dira.

LEGEDIA

- [71/2022 FORU DEKRETUA, ekainaren 29koa](#), Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculuma ezartzen duena.
 - [AKATS ZUZENKETA](#) ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren II. eranskinari. Foru Dekretu horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculuma ezartzen da.
- [64/2022 FORU AGINDUA, abuztuaren 8koa](#), Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan dauden ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia arautzen dituena.
- [79/2022 FORU AGINDUA, irailaren 30koa](#), Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan dauden ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko etapetan eskaini beharreko aukerako ikasgaien curriculuma arautzen duena.
- [Real Decreto 217/2022, de 29 de marzo](#), por el que se establece la ordenación y las enseñanzas mínimas de la Educación Secundaria Obligatoria.

ETAPAKO HELBURUAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak lagunduko du ikasleengan honako xede hauetarako gaitasunak garatzen:

- a) Beren betebeharrak erantzukizunez onartzea; beren eskubideak baliatzea, gainerakoekiko begirunez; tolerantzia, lankidetzeta eta pertsonen eta taldeen arteko elkartasuna lantzea; elkarrizketa erabiltzea, giza eskubideak gizarte plural baten balio komun gisa sendotzeari begira, eta herritar demokratikoa izateko prestatzea.
- b) Diziplina, ikasketa eta laneko ohiturak garatu eta finkatzea, bakarkakoak zein taldekoak, beharrezkoak baitira ikaskuntza lanak eraginkortasunez egiteko eta baliagarriak ere bai, garapen pertsonalari begira.
- c) Sexuen arteko desberdintasuna eta haien arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna balioetsi eta errespetatzea. Gizonen eta emakumeen arteko diskriminazioa dakarten estereotipoak arbuiatzea.
- d) Norberaren gaitasun afektiboak indartzea nortasunaren esparru guztietan eta besteekiko harremanetan; indarkeria, mota guztietako aurreiritziak eta jokabide sexistak arbuiatzea, eta gatazkak bakebidez konpontzea.
- e) Informazio-iturriak erabiltzeko oinarrizko abileziak garatzea, zentzu kritikoaz ezagutza berriak eskuratzeko. Oinarrizko kompetentzia teknologikoak garatzea, eta haien funtzionamendu eta erabileraren gainean hausnarketa etikoan aurrera egitea.
- f) Ezagutza zientifikoa jakintza integratutzat hartzea, hainbat diziplinan egituratzen dena, eta ezagutzaren eta esperientziaren arloetan arazoak identifikatzeko metodoak ezagutzea eta aplikatzea.
- g) Espiritu ekintzailea eta bere buruarekiko konfiantza, parte-hartzea, zentzu kritikoa, ekimen pertsonala, eta ikasten ikasteko, planifikatzeko, erabakiak hartzeko eta erantzukizunak bere gain hartzeko gaitasuna garatzea.
- h) Ahoz nahiz idatziz gaztelaniazko (edo, hala badagokio, euskarazko) testu eta mezu konplexuak ulertu eta zuzen adieraztea, eta literatura ezagutzen, irakurtzen eta aztertzen hastea.
- i) Atzerriko hizkuntza bat edo gehiago ulertzea eta horretan/horietan modu egokian hitz egitea.
- j) Norberaren eta gainerako pertsonen kulturaren eta historiaren oinarrizko alderdiak ezagutzea, balioestea eta errespetatzea, bai eta Nafarroako ondare artistikoa eta kulturala, geografia eta historia eta bertako hizkuntzen, kulturen eta ohituren aniztasuna ere.
- k) Norberaren gorputzaren eta gainerakoenen funtzionamendua ezagutu eta onartzea, desberdintasunak errespetatzea, gorputzaren zaintza eta osasun ohiturak sendotzea, eta gorputz hezkuntza eta kirola egitea, garapen pertsonala eta soziala errazteko. Sexualitatearen giza dimentsioa ezagutu eta baloratzea, bere aniztasunarekin. Osasunarekin, kontsumoarekin, izaki bizidunen zaintzarekin, enpatiarekin eta

begirunearekin (bereziki animalien kasuan) eta ingurumenarekin lotutako ohitura sozialen balorazio kritikoa egitea, eta horiek gordetzen eta hobetzen laguntzea.

l) Arte-sorkuntza aintzat hartzea eta arte-adierazpen guztien hizkuntza ulertzea, hainbat adierazpen eta irudikapen baliabide erabilita.

IKASGAIEN GARAPENA ETA ANTOLAKETA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza etapa ikasleen gaitasunak garatzera bideratutako ikasgaien arabera antolatuta dago.

Lehen hiru ikasmailetako ikasgaiak hauek izanen dira:

- Biologia eta Geologia.
- Gorputz Hezkuntza.
- Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza.
- Fisika eta Kimika.
- Geografia eta Historia.
- Gaztelania eta Literatura.
- Euskara eta Literatura.
- Atzerriko Hizkuntza. Ingelesa.
- Matematika.
- Musika.
- Teknologia eta Digitalizazioa.

Hautagaiak

- Erlijioa eta Hezkuntza Arreta
- Frantsesa eta Literatur sorkuntza (DBH 1) edo Oinarrizko Hizkuntza Trebetasunak (DBH 2)

ORDUTEGIA ETA IRAKASGAIEN BANAKETA

- DBH: astean 55 minutuko 30 saio.

ARLOAK		
Bigarren Hezkuntza (DBH)	DBH1	DBH2
<i>Tutoretza</i>	1	1
<i>Biologia eta Geologia</i>	3	
<i>Fisika eta Kimika</i>		3

<i>Geografia eta Historia</i>	3	3
<i>Matematika</i>	4	4
<i>Euskal hizkuntza eta literatura</i>	3	3
<i>Gaztelaniazko hizkuntza eta literatura</i>	3	3
<i>Atzerriko lehen hizkuntza: ingelesa</i>	3	3
<i>Teknologia</i>	2	2
<i>Musika</i>	2	
<i>Plastika hezkuntza, ikusizkoa eta ikusentzunezkoa</i>		2
<i>Gorputz Hezkuntza</i>	2	2
<i>Literatur sorkuntza</i>	2	
<i>Atzerriko bigarren hizkuntza: Frantsesa</i>		2
<i>Hizkuntza trebetasunak</i>		
<i>Balio zibikoen Hezkuntza</i>	1	1
<i>Hezkuntza Arreta / Erlijioa</i>	1	1
SAIOAK GUZTIRA	30	30

EBALUAZIOA

- Ikasturte hasieran, hasierako banakako ebaluazioa egingen da ikasmaita bakoitzeko ikasle guztientzat, ikasle bakoitzaren ezaugarriak ezagutzeko eta hezkuntzako esku-hartzea planifikatu ahal izateko.
- Hasierako ebaluazioaz gain, ikasmaita guztietan hiru ebaluazio-saio egingen dira (hiru hilean behin) eta azken ebaluazio-saio bakarra (ez dago ezohiko azken ebaluaziorik).
- Irakasgai bakoitzaren ebaluazioa hori ematen duen irakasleak egingen du. Ikasle bati eragiten dioten gainerako erabakiak taldean hartuko ditu irakasle-taldeak, taldeko tutorearen informazioa eta irizpidea bereziki kontuan hartuta, erabakiak hartzeari buruzko adostasuna bultzatzeko.
- Irakasgaia bera baloratzeaz gain, irakasleek ikasturtean zehar ebidentzia nahikoak bilduko dituzte ikusteko ea ikasleak funtsezko gaitasunak eskuratzen eta garatzen ari diren, bakoitzaren irakasgaiaren ikuspegitik.
- Etapan zehar, ikasleak mailaz igo edo ez erabakitzerakoan, kontuan hartuko da zein den funtsezko gaitasunen eskuratze eta garapen-maila, eta baloratuko da zein neurri diren egokienak ikaslearen aurrerabidea errazteko.

- Irakasgai guztiak gainditu dituzten ikasleak, edo ebaluazio negatiboa batean edo bitan dutenak, automatikoki igoko dira mailaz, kontuan hartuta, arloen kasuan, zenbat irakasgai dituzten bakoitzean.
- Halaber, edozein izanik ere gainditu gabeko irakasgaien kopurua, ikasleak ikasmilaz igoko dira, baldin eta irakasle-taldeak uste badu gainditu gabeko irakasgaien izaerak posible egiten duela hurrengo ikasturtean arrakastaz jarraitzea, eta uste badu errekupeartzeko aukera onak dituztela eta igotze horrek mesede egingen diela haien bilakaera akademikoari.
- Irakasgai edo arlo guztiak gainditu gabe mailaz igotzen diren ikasleek errekupeazio-planak beteko dituzte.